



**FORO DE BARRIO**  
**AUZO-EZTABAIDAGUNEA**  
**2018**  
**ETXABAKOITZ**

<b>Fecha / Data:</b>	2018/06/05
<b>Hora / Ordua:</b>	18:30
<b>Lugar / Kokalekua:</b>	Nicasio Landa ikastetxea (Ekitaldi Aretoa)
<b>Concejala de barrio / Auzo-zinegotzia:</b>	Armando Cuenca
<b>Participantes / Parte-hartzaileak:</b>	10 gizon eta 10 emakume
<b>Otros / Bertze batzuk:</b>	
<b>Moderadora / Moderatzailea:</b>	Partaidetzako teknikaria: Floren Luqui Dinamizazio Komunitarioko Zerbitzua: Maitane Urmeneta, Elena Esparza eta Ane Zabaleta

**Apertura / Hasiera**

Floren Luqui Herritarren Partaidetza eta Gizarte Ahalduntzeko Alorreko teknikariak parte-hartzaileei ongietorria egin die, eta eskerrak eman dizkie auzo-eztabaidagunera etortzeagatik. Jarraian, eztabaidagunea nola antolatuko den zehaztu du: aulkiak zirkuluerdian jarriko dira, eta bi dinamika egingo dira, lantalde bakar bat osatuta.



Ondoren, hitza eman dio Armando Cuencari, Etxabakoitzeko auzo-zinegotziari; Etxabakoitz Bizirik kolektiboak egindako lanaren garrantzia nabarmendu du Cuencak, bertzeak bertze.

Azkenik, lehenbiziko dinamikari ekin zaio.

**Grupos de Trabajo / Lantaldeak**

**LAN-DINAMIKAK**

Lehenbiziko dinamikari hasiera eman zaio, eta panel batekin lan egin da; bertan, eskaerak eta iradokizunak jarri behar dira, eta beraien izaeraren arabera sailkatu: *“Gorabeherak”*, *“Interes orokorreko proposamenak”* eta *“Salaketa publikoak”*. Azpimarratu dute salaketa publikoak jasotzen badituzte ere horiek bertze bide batez lantzen direla (Herritarren Segurtasunean, adibidez), eta ez auzo-eztabaidagunean bertan.



Lehenbiziko dinamika amaituta, Luquínek bigarren dinamika aurkeztu du; horretan mugikortasunaren gaiari helduko zaio. Gogoeta egiten laguntzeko, aipatu du zenbait ikuspegitatik begira dakiokela mugikortasunari: oinezkoen ikuspegitik, txirrindularienetik edo auto partikularren edo garraio publikoaren erabiltzaileenetik. Dinamikaren funtsa izan da mapan markatzea herritarrek atsegin deritzen eta ez-atsegin deritzen puntuak, bi koloretako gometsen bidez, betiere mugikortasunaren ikuspegitik. Eta, halaber, post-it-en bidez adieraztea markatze horren zergatia, eta hobetzeko proposamenak.

## EMAITZAK

Lehen zerrendatutako eremuak kontuan hartuta, hona hemen herritarrek egindako oharrak, "Gorabeherak", "Proposamenak" eta "Salaketak" multzoetan sailkatuta.

### GORABEHERAK (KEXAK, IRADOKIZUNAK, ERREKLAMAZIOAK)

1. Kendutako sastrakekiko kezka. Han uzten dira, eta ez dira jasotzen. Sute-arriskua.
2. Arga ibaiaren pasealekuak uholde-arriskua du, eta ez dago seinaleztatuta.
3. Bizikletentzako aparkalekua eskatu dute, auto partikularrak gutxiago erabiltzeko.
4. Abiadura murriztea, eta villavesaren geralekua jartzea Aróstegui etorbidean.
5. Aparkalekuak.
6. Sakanguneak jartzea Concepción Benitezen.
7. Civivoxa.
8. Igogailuaren aldaparen mantentze-lanak.
9. Argal eraikina bota egingo da?
10. Aróstegui etorbideko etxeak, Zizurrekiko mugaren ondokoak, egoera txarrean daude.

### INTERES OROKORREKO PROPOSAMENAK

1. Arga ibaia eraistea.[NI1]
2. Abiadura Handiko Trenaren (AHT) proiektua definitzea, eta auzoa urruntzea onartezina, zaharkitua eta garestia den proiektu horretatik.
3. PSIS planari (udalez gaindiko plan sektoriala) buruzko argibide gehiago.
4. AHTaren udalez gaindiko plan sektorialari buruzko argibide gehiago.



**SALAKETAK**

Ez zen salaketarik jaso.

Behean jasota daude herritarrek auzoko mugikortasunari buruz egindako proposamenen emaitzak, eremuak 'atsegin' zein 'ez-atsegin' sailkatuta.

<b>ATSEGIN EZ DIREN PUNTUAK</b>	<b>PUNTU ATSEGINAK</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>✗ Asmovileko biribilgunea: autoak abiadura handian etortzen dira.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Aisialdirako eremua: Ipar Etxabakoitzeko barneko plazak.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>✗ Argal eta haren perimetroa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Argako pasealekua</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>✗ Inquinasa: 15. eta 18. villavesak errepidearen bi aldeetan gelditzen dira.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Ibaiertzeaneko Herri Parkea</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>✗ Urdanoz eta Jazar arteko zelaia.</li> <li>○ Proposamena: konpontzea eta "zuhaizti" bat edo egitea. <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Proposamena: erdia parke bihurtzea, eta bertze erdia, aparkaleku</li> </ul> </li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Auzoko berdeguneak, baina mantentze-lanak eginda (Urdanoz eta Jazar arteko zelaia, ikuztegiaren atzeko zelaia).</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>✗ Jazar atzeko pasealekua, urpean gera daitekeena.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Komunitate-polizia</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>✗ Concepción Benitez eta Venta Andres kaleetan zirkulazio handia dago</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Jazar</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>✗ Barkoseko aparkalekua: Ez dago lekurik.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Aisialdirako eremua: Ipar Etxabakoitzeko barneko plazak.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>✗ Errekaren inguruko pasealekua txukuntzea (Jazar aldean).</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Argako pasealekua</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>✗ Jesusen Bihotzaren Ikastetxeko patioa.</li> <li>○ Proposamena: Akordioa lortzea jabeekin, auzotarrek erabil dezaten bizitza komunitarioa egiteko.</li> </ul>	



## El Ayuntamiento escucha / Udalak entzuten du

### ERREPASOA / EMAITZAK IRAKURTZEA

#### Herritarrek hitz egiten dute

Dinamikak amaitzean, egindako ekarpenak irakurri eta errepasatu dira, eta hitza eman zaie herritarrei. Honako ekarpen hauek egin dituzte:

Auzoaren barruan mugitzeko arazoa da eztabaidagunean gehien plazaratu den gaietako bat, batez ere autoentzako aparkaleku faltaren arazoa. Auzotarrek adierazi dute kanpoko jendeak maiz erabiltzen duela aparkalekua, doakoa denez askok erabiltzen baitute erdigunera joateko, eta hala murriztu egiten dute auzotarrentzako lekua.

Arazo horri dagokionez, auzotar batek proposatu du aldirietako aparkaleku bat eraikitzea, auzotarrentzako plaza-kopurua handitzeko hala.

Landutako beste gaietako bat izan da zirkulazio handia dagoela auzoko zenbait eremutan, hala nola Jesusen Bihotzaren ikastetxean, Concepción Benítez kalean eta Aróstegui etorbidean. Azken horri dagokionez, auzotarrek kontatu dute villavesaren geralekua behin baino gehiagotan eraman dutela aurretik ibilgailuek, eta zenbait alditan deitu diotela udaltzaingoari geralekua aitzinago jartzeko gomendatzeko, baina ez dietela eman, ez erantzunik, ez konponbiderik. Proposatu dute “guardia etzanak” edo oztopo fisikoak jartzea, hala autoak abiadura murriztera behartzeko.

Bizikletaz mugitzeko, badira bai puntu atseginak bai atseginak ez diren puntuak, herritarrek diotenez. Errekaren inguruko eremuaren hobekuntzari eta auzoaren beheko eta goiko aldean arteko lotura errazten duen igogailuari esker, bizikletaz ibiltzea atsegina da. Jazar aldean, ordea, mantentze-lanak egin behar dira, eta ez da oso egokia bizikletaz ibiltzeko; horregatik, puntu ez-atsegintzat dute.

Auzotar batek adierazi duenez, auzoan dauden maldak onargarriak dira, beste aukerarik ez baitago, baina ospitalearen ondoko orubean bizikletentzako aparkaleku bat egokitzeak hobetuko luke bizikleta bidezko mugikortasuna.

Auzotarrek uste dute trenbideetako pasabideek mantentze-lanak behar dituztela, eta trenak zenbait lagun harrapatu dituela ere kontatu dute.

Garraio publikoari dagokionez, auzotarrek eskatu dute 15. eta 18. villavesen maiztasuna handitzeko, eta, horretaz gain, geraleku bat jartzeko Inquinasan.

Bertze auzotar batek erran du bigarren hiri-igogailuak ez duela aireberritze-sistematik, eta, ondorioz, biziki berotzen dela haren barrualdea, eta oso desatsegina dela egun beroetan erabiltzea. Gurpil-aulkiekin igotzeko arrapala egoki bat ere eskatu dute, oraingoa aldaparen erdialderaino baizik ez baita iristen.



Azkenik, auzotarrek adierazi dute Inquinasako pasabidean ur-putzuak sortzen direla, zehazki, Aróstegui etorbideko 7.ean, eta pasabidean mantentze-lanak egiteko eskatu dute.

## El Ayuntamiento informa / Udalak informatzen du

### Armando Cuenca Pina zinegotziaren erantzuna

Herritarren esku-hartzeak amaitu ondoren, Armando Cuenca zinegotziak hitza hartu, eta eskaera guztiei erantzun die. Lehenbizi, bigarren dinamikaren inguruko eskaerei (mugikortasunari buruzkoak) erantzun die. Horretarako, ekarpenak sailkatu ditu: oinezkoak, bizikleta, autobusak eta auto partikularrak.

Oinezkoen inguruko kontuei dagokienez, Cuencak konponbide hau proposatu du: gehieneko abiadura 50 km/h-ra jaitea Aróstegui etorbidean, eta, hala, automobilen zirkulazioaren arazoa murriztea, auzotarrek eskatzen duten bezala.

Bizikletek Pio XII.aren etorbidetik Andrés bentaraino zabalduko den bizikletentzako aparkaleku bat erabili ahal izango dute, zinegotziak iradoki duenez.

Cuenca bat dator hiri-autobusaren ordutegia zabaltzeko zenbait auzotarrek proposatutako konponbidearekin.

Auto partikularrei dagokienez, azaldu du aldirietako aparkalekua egitea ez dela konponbiderik egokiena, kontrako eragina izan bailezake, eta hura ere erabil bailezakete auzotik kanpoko biztanleek. Horrenbestez, zinegotziak iradoki du hobea litzatekeela eremu urdin bihurtzea balizko aldirietako aparkaleku hori, auzotarrentzat bakarrik izan dadin.

Ondoren, lehenbiziko dinamikan azaleratutako kontuei erantzun die Cuencak (“Gorabeherak, proposamenak eta salaketak”), eta onartu du oraindik konpontzeko daudela Elortz erreko sastrakak kentzearen eta Etxabakoitzeko zelaiaren gaiak. Auzotar bat kexatu da errekoaren ertza egoera txarrean dagoelako; landareek segurtasun-hesiak gainditu dituzte, eta berriz ere su hartzeko arriskua dago, duela bi urte gertatu zen bezala.

Auzotar batek Civivox bat jartzeko eskatu du, eta zinegotziak, horren alde edo kontra agertu gabe, azaldu du horrelako proiektu batek aurrekontu handia eskatzen duela, baina, era formalean bideratuz gero, egin litekeela.

Zinegotzia abiadura handiko trenaren (AHT) ekimenaren aurka agertu da, uste baitu ezin zaiola heldu proiektuari, ekonomiaren aldetik zein azpiegituren aldetik. Eta gehitu du ez dela ezer aitzinatu udalez gaindiko plan sektorialean (PSIS).

Une horretan, auzotar batek erran du bereizi behar liratekeela PSISen eta AHTaren proiektuak, ez baitute zertan loturik egon. Bigarrena auzoarentzat gutxienez kaltegarria izango litzatekeen makroproiektua da; lehenbizikoaren helburua, ordea, auzoko bizikidetzaren hobetzea



da, auzoa biziberritzeko etxebizitza berriak eraikitzearen bidez. Cuencak erantzun dio berak nahiago duela mugikortasunaren arloko bertze proiektu batzuk lehenestea, eta mugikortasunerako aurrekontuak auzoei esleitzen zaizkien modua aldatzea, berdintasuna irizpide hartuta banatzen baitira eta ez zuzentasuna irizpide hartuta.

## **El barrio informa / Auzoak informatzen du**

### **Ibaiertzean proiektua**

Amaiera gisa, auzotar batek azaldu du nola egin zen auzoko zenbait kolektibok eta elkartek (“Etxabakoitz bizirik”, “Plataforma Echavacoiz”, “las Chicas de la Costura”, “las Sevillanas” eta “Jazar”) parte hartu zuten jaialdi bat, eta, bertzalde, ongi baloratu da andeatuta zegoen eremu bat berreraikitzea: “Herri Parkea” deritzona, Grupo Urdánozko aparkalekuaren ondoko orubea. Azaldu dute ekimen hartan auzotar guztiek parte hartu zutela, gaztetxoek zein adinekoak, eta lagundu zutela guztiz andeatuta zegoen eremu bat berreraikitzen.

Proiektua ongi baloratzeko arrazoietakoa bat da auzoan ez dela egoten, oro har, bertze kultura-ekimenik.

## **Cierre / Amaiera**

Cuencak biziki ongi baloratu du eztabaidagunea, eta azpimarratu du gutxitan hitz egin duela, eta hori adierazgarri ona iruditzen zaiola. Halaber, pozik azaldu da proposamen oso zehatzak egin direlako, eta, gainera, bere eskumen-arlokoak izan direlako; horrenbestez, eraginkortasun handiagoz aztertzen ahal izango ditu.

Amaitzeko, bertaratuei eskerrak eman dizkie etortzeagatik eta parte hartzeagatik, eta, halaber, Román Luzán (UPNko zinegotzia), Maite Esporrín (PSNko zinegotzia) eta prentsa etortzea ere eskertu du.